


SEGMENTAZIOA


Gure projektua emakumeentzat dago zuzenduta. Hain zuzen ere, festa edota jai batetik etxera itzuli nahi duten neskentzat. Baita gauan edozein lekutik itzuli nahi dutenei ere, ez dira festa edo jai batetik etorri behar.

Merkatu ikerketa bat egin dugu, gure bezeroen nahiak ezagutzeko eta horrela, haien iritziekin gure projektua aurrera eraman ahal izateko segurtasun gehiagorekin.


Inprimaki hau Botikazarreko lehenengo mailako eta bigarren mailako ikasleei bidali diegu eta 240 ikasleen erantzuna jaso dugu. 5 galdera jarri genituen inprimaki honetan, generoaren galdera, ea emakumezkoa edo gizonezkoak diren edo bestelakoren bat, zer kurtsotakoak diren iritzien artean adina kontuan hartzeko, etxera bueltan beldurra sentitzen baduten, etabar.



Bi adinetako jendeari bidali eta erantzun dute, horrela ikusi izan dugu, zelan ez dagoen ezberdintasunik adinen artean




Genero galdera egin dugu, generoen desberdintasunen aldea ikusteko, eta beste galderetan kontuan hartu generoen ezberdintasunak




Jendea etxera bueltatzean beldurra duen galdetu dugu, horrela modu seguru batean bueltatzeaz kezkatuko diren jakiteko.

pixka bat gehiago ordainduko zenuke etxera seguru itzuliko zarela jakinda?
240 erantzun



Prezioaren arloan bezeroen iritzia galdetu dugu gure zerbitzua besteak baino euro 1 gehiago izaterakoan.

zer emango lizuke segurtasun gehiago?
240 erantzun



Galdera hau egin dugu, gure ideian gidariak neskak direlako, eta jakin nahi genuen ea jendea seguruago sentitzen den mutil batekin baino.